

1/2020 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK OTSAILAREN
11n EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

KIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea
Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea
Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea
Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hogeiko otsailaren hamaikan, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko bilkuraren aktaren berri ematea eta haren onespina.
2. Batzorde eta Kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.
3. Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkarien izendapena.
4. Hitzarmena Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin (NABI).
5. Langileen enplegu baldintzak.
6. Plan Estrategikoaren lantaldea.
7. Correosekin izenpetutako hitzarmena luzatzea.
8. Lehendakariaren informazioa.
9. Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren aktaren onspena

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu irakurri beharrik gabe, lehendakariak azaroaren 19an egin zen Batzorde Betearazleko kideren batek oharren bat egin nahi ote duen galdetu du.

Maya Iruñeko alkate jaunak zehaztu duenez, administrazio elektronikoaren eta Animsaren inguruan adierazi zuena zera da: Animsak administrazio elektronikoaren abiatzea sustatu eta bizkortu behar zuela adierazi zutenekin bat zetorrela. Era berean, eskatu du Batzorde Betearazlearen eta Toki Araubideko Foru Batzordearen bilkuretara joateagatik egokitutako dieten inguruko puntuan adieraztea hark dieta horiei uko egiten diela.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, berriz adierazi du galde-eskeen puntuan hutsik dauden etxebizitzaren erroldaren inguruan galdetu zuela eta Idazkari Nagusiak erantzun zuela galdetuko zuela egoera zertan dagoen.

Zuzenketa horiek aintzat harturik,

ERABAKI DA:

2019ko azaroaren 19an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Toki Araubideko Foru Batzordea (2019/11/20).** Inbertsioen Planaren luzapenaren berri eman zen.
- **NILSaren Administrazio Kontseilua. (2019/11/26)** Nilsako Kontseilua kontseilari berriekin osatu eta Nilsaren jardunari eta funtzionamenduari buruzko informazioa eman zen. Horretaz gain, sozietatearen kudeatzailea kargutik kendu eta berria izendatu zen.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua. (2019/11/27)** Legealdi honetarako departamentuak dituen ildo orokorrak eta erronkak azaldu ziren. Labur honakoak izanen dira: Nafarroan hezkuntzaren aldeko itun soziala lortzea eta berrikuntzaren erreferente diren landa eremuko eskolen aldeko apustua egitea. 2019/2020 ikasturteko lan plangintzaren eta aurrekontuaren berri eman zen ere bai eta Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko txostenaren zenbait puntu onetsi ziren. Bestalde, eginen diren Berrikuntza Proiektuei buruzko XXIV. Jardunaldien berri eman zen.
- **Nafarroako Turismo Kontseilua (2019/11/27).** Turismoari buruzko Trebakuntza Planaren eta Turismo Foru Legearen aldaketa tramitatzearen berri eman zen.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2019/11/27)** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Finantzatzeari buruzko Foru Dekretuaren proiektuari aldeko txostena egin zitzaion.
- **Nafarroako Estatistika Kontseilua (2019/12/11).** Nafarroako Estatistika Plana egiteko lantaldeetan parte hartzeko aukeraren berri eman zen.

- **Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua (2019/12/16).** Adinekoentzako egoitzak eta zentroak baimentzeko dekretu berri bat egiteko batzorde baten sorrerari buruzko informazioa eman zen.
- **Miguel Indurain Fundazioaren Patronatua (2019/12/16).** 2020rako aurrekontuen eta jarduketa planaren berri eman zen.
- **Nafarroako Desgaitasun Kontseilua. (2019/12/16)** Kontseilua berri izanari buruzko informazioa eta 2020ko plan arauemaileari buruzkoa eman zen. Bestalde, edadetuentzako eguneko egoitzen zerbitzuaren eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamenduari buruzko Foru Dekretuaren zirriborroaren inguruko informazioa ere eman zen. Udal batzuek egindako eskaera kontseilura eraman zen, edadetuentzako egoitzak, eguneko zentroak eta abar egokitzeko baliabideak eskatzen zituen.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua. (2019/12/16).** Zenbait erreklamazio ebatzi ziren.
- **FEMPen Lurralde Kontseilua (2019/12/17).** Kontseilu honetan Gobernu Batzordea eta Batzordeak osatu zirela jakinarazi eta horietan parte hartzeko zailtasunak adierazi ziren.
- **Despopulazioaren kontra borrokatzeko Batzordea. (2019/12/17).** Batzordea eratu eta Nafarroako zenbait eremutan egindako lanak aurkeztu ziren. Jarduketa ildoak ezartzeko, batzordeko kideekin bilerak eginen direla adierazi zen.
- **Nafarroako Euskararen Kontseilua. (2019/12/17).** Politika linguistikoari buruzko akordio programatikoa eta Euskarabidearen helburuak azaldu ziren. Horretaz gain, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Foru Dekretuaren aplikazioari buruzko informazioa ere eman zen.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua. (2019/12/18).** Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena berrikusi eta kontseiluan lan batzordeak sortzeko proposamena egin zen.
- **Lurraldearen Antolamenduko Batzordea (2019/12/18).** Imarcoingo Plan Sektorialaren berri eman zen.
- **Eskolatzearen Batzorde Nagusia. (2019/12/19).** Eskolatzearekin lotutako bost eskaera ebatzi ziren. Horretaz gain, informazioa eman zen Arartekoak emandako aholkuen inguruan eta mailaz mailako ikastetxe bakoitzeko matrikulazioen inguruan.
- **Vianako Printzea Erakundea - Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerririk koordinatzeko Forua (2019/12/20).** Foroaren osaera eta egindako bilerak berrikusi ziren. Kultura Zuzendaritza Nagusiak laguntza eskatu zuen Kulturari buruzko Foru Lege berria zabaltzeko. Liburuzainak ordezkatzeko arazoari heldu zitzaion eta bertaratuek herri txikietarako programa bereziak egiteko nahia azaldu eta horren inguruan aritu ziren.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2019/12/26/)** Honako gai hauek jorratu ziren: Nafarroako aurrekontu orokorrak, Transferentzia Arrunten Funtsaren Foru Lege proiektua eta egun baliogabeei buruzko Foru Dekretuaren proiektua.
- **Nafarroako Ingurumen Kontseilua (2019/12/27).** Aurrekontuei kontrako txostena eman zitzaion parte-hartze falta dela eta.
- **Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua. (2019/12/27).** Nafarroako aurrekontu orokorren berri eman zen.

- **Garapen Lankidetzarako Nafarroako Kontseilua. (2020/01/31).** 2023an Garapenerako Laguntza Ofizialaren % 0,6ra iristeko akordio programatikoa labur azaldu zen. Aurten, % 0,4koa da laguntza hori. Era berean, Garapenari buruzko hirugarren Plan Zuzentzailea eginen dela azaldu zen. 2020ko deialdien berri ere eman zen; osotara, 13 milioi euro izanen dituzte.
- **Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioa. (2020/01/31).** 2020ko Prestakuntza Planaren deialdiaren ebazpen proiektuari oniritzia eman zitzaion, 157.400 euroko zuzkidura izanen duena. Deialdiaren tramitazioa ahalik eta lasterren egin nahi da Aste Santuaren ostean plana egiten hasi ahal izateko.
- **Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enplegurako prestakuntzari buruzko Batzordea (2020/01/31).** Honakoak jorratu ziren: NAPIren Prestakuntza Plana, Segurtasun Eskola eta hizkuntzen trebakuntza.
- **Emakumeen kontrako indarkerian arreta eta prebentzioa eraginkortasunez koordinatzeko jarraipen batzordea. (2020/02/07).** Batzorde honen lan-ildoan eta bileren maiztasunaren berri eman zen. Bestalde, NUKFren lana eskertu zuten eta genero indarkeriaren alorrean protokoloak egiteko gidaliburua berrikusteko premia adierazi zen.
- **NILSaren Administrazio Kontseilua. (2020/02/07).** 2020rako jarduketa plana aurkeztu zen.

Abenduaren 26ko Toki Araubideko Foru Batzordeari dagokionez, Romero jaunak bertako kide gisa zehaztu duenez, azkenean aldeko txostena eman zitzaion Departamentuak eginiko proposamenari baina hori ez zen hasiera batean Departamentuak Batzorde Betearazleari aurkeztutako proposamena izan. Gehitu duenez, gaia ez zen batere samurra izan. Aurrekontuei buruzko Foru Legearen proiektuaren inguruan Romero jaunak adierazi du, toki entitateetako ordezkariak toki transferentzien igoera eskatu zutela, hain zuzen ere, gutxieneko 5 milioiko libre erabakitzeko funts igotzeko eskatu zutela zehaztu zuen eta biztanle kopuruaren aldetik baldintzarik gabekoa. Horrekin batera, aurrekontu-sail izendunak ekiditeko eskatu zuten. Federazioko lehendakariak berretsi egin du ildo horretako eskaerak egin zirela baina zehaztu duenez, ondoren parlamentuak tramitatu behar du.

Horren harira Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, esan du batzorde horretan aldeko txostena eskatzen dela baina ondoren parlamentuak tramitatu behar duenez, ezin dela jakin azkenean nola onetsiko den. Haren ustez, egiteko modu horren bidez, NUKF batzuetan egoera zailean gera liteke. Uste du, gainera, halakoetan aldeko txostena ematea txeki zuri bati oniritzia ematea dela. Zehaztu duenez, ahalegin handia egiten da txostena aldekoa izan dadin baina, agian, hori ez da modua.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, azaldu du kasu horretan ahalegina egin zela aho bateko iritzia lortzeko. Horregatik, esan du, aldeko txostena eskaera batzuekin batera eman zen; konfiantzazko botoa emanez. Gehitu duenez, azkenean onesten dutena NUKFk duen iritzitik oso urrun baldin badago, agian, zer edo zer egin beharko da. Hala ere, aipatu du proiektua orokorrean baloratu zela aldeko alderdiak zituelako. Era berean adierazi du bost milioiak despopulazioarekin lotu izana ez zela zuzena izan.

Bestalde, Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, Gizarte Zerbitzuak Finantzatzeko Foru Dekretuari buruz egindako txostenaren inguruan galdetu du. Lehendakariak azaldu du, azkenean, aldeko

txostena eman zitzaiola mankomunitateei galdetu ondoren. Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen inguruan, Alvarez jaunak adierazi du plan orokorren tramitazioa arindu beharra dagoela lau urte itxoin behar izatea gehiegizkoa delako. Toki Inbertsioen Planari dagokionez, adierazi du, ez ahazteko Inbertsio Plan berri baten onespeneren zain daudela.

Bost milioiko zuzkiduraren harira adierazi du, bestalde, ez duela ongi ikusten egindako zuzketa zain egon behar izatea. Haren ustez, zuzkidura hori Toki Inbertsioen Planarekin lotu beharra zegoen edo biztanleei dagokionez banaketa proportzionalago batekin. Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioaren inguruan dio eskertzekoa litzatekeela trebakuntza planaren tramitazioa bizkortzea lortzea eta hala izatea espero duela.

Horretaz gain, adinekoentzako zentroak eta egoitzak baimentzeko foru dekretuari ere heldu dio. Horren inguruko interesa adierazi du eta gogorarazi du Egoitzei buruzko Esparru-Akordioa bete ahal izateko, dagoeneko, laguntza eta trebakuntza behar dela.

Aldiz, Segura andreak, Alesbesko alkateak, adierazi du zenbait udal oso egoera zailean gelditu direla azkenean erabili ezin izan dituzten finantzarioki jasangarriak diren inbertsioekin.

Lehendakariak azaldu du, aurrekontuei egindako aldeko txostenarekin batera eginiko eskaeren artean, hain zuen ere, arazo horri konponbidea bilatzearena zegoela. Departamentuak hartutako konpromisoaren arabera, udal horiek onetsiko den Inbertsio Plan berriari heldu ahalko diote.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. Batzorde eta Kontseilu sektorialetako ordezkarien izendapena

Lehendakariak dagoeneko ordezkariak izendatuak dituzten bi batzorderen inguruko zehaztasunak eman ditu. Honakoak aipatu ditu: etxegabetzei jarraipena egiteko sortutako batzordea eta Nafarroako Merkataritza Kontseilua.

Lehenengoari dagokionez zehaztu du bi ordezkari izendatu zirela; Iruñekoa eta Tuterakoa baina jakinarazi dietenez, batzordearen egungo osakerak ordezkari bakarra aurreikusten du.

Izendatutako ordezkariak adostuta, Iruñeko alkatea izanen da batzorde horretako ordezkaria. Bigarrenari dagokionez, lehendakariak azaldu du bi kide izendatu zirela baina bi ordezkoren izendapena ere eskatu dietela. Horrenbestez, ordezkari gisa haien izendapena onartu dute Segura andreak, Alesbesko alkateak, eta Garcia andreak, Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakariak.

Ondoren, NAPIko Gobernu Kontseilurako izendapena proposatu da. Lehendik zegoen organoa da kontseilua, bertan behera gelditu ondoren berriro abiatu dutena. Izaera teknikoa kontuan harturik eta NUKFren trebakuntza planari lotutako lana egiten duenez, honakoa proposatu da kontseiluko kide:

- NAPIren Gobernu Kontseilua
 - Fermín Cabasés Hita, NUKFko teknikaria.

ERABAKI DA:

Honako ordezkari hauen izendapena onestea:

- Etxegabetzei buruzko Batzordea.
 - María Caballero Martínez, Gizarte Zerbitzuetako, Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako eta Kiroleko zinegotzi ordezkaria.
- Nafarroako Merkataritza Kontseilua.
 - Ana Elizalde Urmeneta, Iruñeko Udaleko Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoko zinegotzi delegatua.
 - Jesús Arrizubieta Astiz, Tafallako alkatea
 - M^a Carmen Segura Moreno, Alesbesko alkatea (ordezkoa).
 - Sabina García Olmeda, Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria (ordezkoa).
- NAPIren Gobernu Kontseilua
 - Fermín Cabasés Hita, NUKFko teknikaria.

4. PUNTUA.-Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin (NABIrekin) izenpetutako hitzarmena

Proposatu da Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin (NABIrekin) lankidetzan aritzeko hitzarmen hori onestea, helburu duena halako politikak sustatzea toki esparruan.

Lehendakariak azaldu duenez, 2018an eta 2019an dagoeneko izenpetutako elkarlanerako hitzarmenen antzekoa da aurtengoa eta Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, diru-partida zehatza du. Hitzarmen horren arabera, NUKFk bere gain hartzen du berdintasun arloko jarduketak batzuk egin beharra; horretarako, Nafarroako Gobernuaren 35.000 euroko ekarpena jasotzen du eta konpromisoa hartzen du 10.000 euroko ekarpen bat egiteko.

NUKFk egin beharreko jarduketan artean, besteak beste, honakoak aipatzen ditu: urte osoan abian egon den berdintasunaren eta genero indarkeriaren aurkako printzipioa aplikatzeko toki entitateei laguntza teknikoa ematea; toki entitateentzako langileentzako oinarrizko ikastaro bat ematea berdintasunari buruz gutxienez 20 toki entitatetan eta gehienez 30etan; eta NUKFk bere jardunerako berdintasun arloko aholkularitza eta laguntza zerbitzua jasotzea. Azken horren barruan egon den lirategi NUKFko langileentzako trebakuntza eta plan estrategikoaren osakeran ere zerbitzu hori kontuan hartzea.

Horretarako, lehendakariak jarraitu duenez, ezinbestekoa da bi laguntza tekniko kontratatzea.

Ondoren, hitza eman zaie bertaratutakoei.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, jakin nahi du zein irizpide hartuko den kontuan ikastaroak egiteko. Idazkari Nagusiak azaldu duenez, trebakuntza hala eskatzen duten entitateei emanen zaie haien egoitzan eta langile guztiei zuzendua dago. Hala ere, eremu berean hurbil dauden entitateen langileentzako trebakuntza saio bateratuak egiteko aukera ere azter daitekeela adierazi du.

Ferrer jaunak, Erriberako Mankomunitatearen lehendakariak, egoitza hori eskaini du ikastaroak egiteko.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, esan du baikorra dela hitzarmenean NUKFren jardunerako eta Plan Estrategikorako barne-aholkularitzari eskainitako ildo bat agertzea eta laguntza horrekin planaren hasieratik hasteko adierazi du.

Garcia andreari, Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakariari, ere hitzarmena eta toki entitateentzako aholkularitza zerbitzua baikorrak iruditu zaizkio. Hala ere, uste du aholkularitza horrek ezin duela toki entitateetan berdintasun arloko langile espezializatuen kontratazioa ordezkatu.

ERABAKI DA:

NABIn eta NUKFren arteko lankidetzaren hitzarmena onestea, akta honi erantsita dagoena, berdintasun arloko politikak sustatzeko toki esparruan; behar den laguntza teknikoaren kontratazioa onestea eta gaitasuna ematea lehendakariari hitzarmena sina dezan.

5. PUNTUA.- Langileen enplegu baldintzak.

Baldintzen proposamenari heldu baino lehen, NUKFko langileak Bulegoetako hitzarmen kolektiboaren arabera arautzen direla azaldu da eta, Batzorde Betearazleak hartutako adostasunen bidez, Federazioko langileen baldintzak Nafarroako administrazio publikoetako langileen baldintzekin parekatzera jotzen dela. Hala egiten da ere bai langileen oinarritzko ordainsariei, lanaldiari, opor-eguneri eta baimenera dagokienez.

Horretaz gain, azaldu denez, egun NUKFn zortzi langile daude: bost lanpostu finkoarekin eta hiru aldi baterako kontratupean.

Proposatzen diren baldintzei dagokienez, ordainsarien eguneratzea proposatzen da Nafarroako administrazio publikoaren langileentzat adostutako baldintza berdinetan, hots, % 2ko igoera.

Horrekin batera, lan-egutegia eta opor-egunak proposatu dira. Halaber, 2020ko lanaldiaren eta NUKFren bulego ordutegiaren berri eman da; aurreko urteetan bezala mantentzen dira.

ERABAKI DA:

NUKFko langileen enplegu baldintzak onestea akta honi erantsitako proposamenean adierazi bezala.

6. PUNTUA.-Plan Estrategikoaren lantaldea.

Lehendakariak azaldu du joan den legegintzaldiko helburuen artean NUKFren ildo estrategikoak edota plan estrategikoa egitea agertzen zela. Hala ere, ezin izan zitzaion horri heldu Toki Administrazioa berrantolatzekeo prozesu parte-hartzailea bukatu arte. Aurreko Batzorde Betearazleak lantalde bat sortu zuen plan estrategikoa egiteko lanekin hasteko. Lantalde horretan txosten bat osatu zen, hasierako diagnostikoa eta prozesu parte-hartzaile bat aurreikusten duen lan plangintza barne biltzen dituen.

Joan den urteko maiatzaren hamaseiko Batzorde Betearazlean, lantaldeak eginiko jarduketari oniritzia eman zitzaion. Halaber, Batzorde Betearazle berriari horren inguruko informazioa ematea adostu zen ildo estrategikoen lanarekin jarraitzekeo eta prozesu parte-hartzailea abiatzekeo.

Hori dela eta, Batzorde Betearazlearen barruan lantalde bat sortzea proposatzen da. Talde horren helburuak metodologia diseinatzea eta prozesu parte-hartzailea abiatzea izanen dira eta, horretarako, laguntza tekniko kontratatzea ere proposatzen da. Lehendakariak gogorarazi du 2020ko aurrekontuetan laguntza tekniko hori kontratatzekeo diru-partida bat dagoela.

Lantaldearen osaerari dagokionez, lurralde-eremu guztietako toki entitate mota guztietako ordezkariak barne hartzea proposatzen da. Halaber, komeniko litzateke lehendakaria eta lehendakariordeak ere lantaldean parte hartzea.

Talde ez oso handia egitea proposatzen da, gehienez, zortzi eta hamabi pertsona artekoa.

- Udal bakunetako biztanle kopuru ezberdinetako hiru ordezkari.
- Udal konposatuetako ordezkari bat edo bi.
- 500 biztanletik beherako eta hortik gorako kontzejuetako bi ordezkari.
- Mankomunitateetako ordezkari bat edo bi.

Proposamena Batzorde Betearazlearen kideen onespenera jarrita, honako hauek haien adostasuna adierazi dute lantaldean parte hartzekeo: bi lehendakariordeak, Iruñeko Udaleko ordezkariak, Urdaingo Udaleko ordezkariak, Gesalazko eta Aranguren Ibarreko ordezkariak (udal konposatuen ordezkari gisa), bi kontzejuetako ordezkariak eta bi mankomunitateen ordezkariak.

ERABAKI DA:

NUKFko Plan Estrategikoa egitekeo lantaldea osatzea adierazitako kideekin eta lantalde horri prozesu parte-hartzaile baten proposamena egitekeo enkargua ematea. Proposamen horrek laguntza teknikoaren kontratazioa eta erabilikeo den metodologia barne hartu beharko ditu.

7. PUNTUA.-Correosekin izenpetutako hitzarmena luzatzea.

Lehendakariak proposatu du Correosekin izenpetutako hitzarmena luzatzea.

Hitza idazkari nagusiari eman dio, eta horrek azaldu du zein diren hitzarmenaren nondik norakoak eta zergatik komeni den luzatzea, toki entitateak profitatu daitezten hitzarmenak eskaintzen dituen deskontuez eta fakturazio baldintzez. Era berean, jakinarazi du Federazio askok antzeko hitzarmena izenpetua dutela Correosekin nahiz eta Correosek berak duela urte batzuk adierazi zailtasunak zituztela hitzarmena mantentzeko posta zerbitzuak arautzen dituen araudi berria zela medio.

Gaia Batzorde Betearazlearen onspenera jarrita,

ERABAKI DA:

Aipatu hitzarmenaren beste luzapen berezi bat eskatzea Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos S.A entitateari, hitzarmenaren eranskinetan zehaztutako baldintzetan jarrai dezan posta eta telegrafia zerbitzuak ematen, 2020ko abenduaren 31ra arte, helburua izanik toki entitateek modua izatea kontratazio prozeduren esleipenak gauzatzeko, Posta Zerbitzuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legeak indarra hartu ondoren, Europako zuzenbidetik eratorritako betebeharrarekin eta kontratazioari buruzko araudiarekin bat.

8. PUNTUA. Lehendakariaren informazioa

Lehendakariak gai hauek jakitera eman ditu:

- Aralar Elkartearekin egindako bigarren bilera. Parlamentuan emaniko hitzaldiaren eta joko areto berriak arautuko dituen foru dekretu berriaren tramitazioaren inguruko interesa adierazi zuten. Udal batzuek hartutako neurriekin bat azaldu ziren eta batik bat interesa duten udalekin elkarlanean aritzeko aukera eskaini zioten Federazioari jokoaren arazoari aurrea hartu ahal izateko funtsezkoa dela uste baitute. Horri dagokionez, hitzaldiak eta jardunaldiak egiteko gogoia edota egoera zaurgarrian dauden pertsonen arretarako elkarlan estuagoa edukitzeko nahia adierazi zuten.
- Urtarrilaren 14an NABlrekin egindako bilera legealdi honetan bi entitateen arteko elkarlana berrabiatzeko. Bien arteko hitzarmena berriz ere izenpetzea adostu zen eta Nafarroako aurrekontu orokorretan diru-partida bat edukitzea NUKFrekin elkarlanean toki entitateetan berdintasuna sustatzeko.
- Nasuvinsan Lursarea eta Red Nelsekin egindako bilera, NUKFk eskatua, entitate horien eta Federazioaren arteko elkarlana eta jarduketa koordinatzeko Klimaren aldeko Alkateen Ituna abiatzeko. Itunaz haratago, elkarlanean bestelako ekintzak antolatzeke asmoa adostu zen.
- Ana Olló Kontseilariarekin izandako bilera bake eta elkarbizitza alorrean legealdi honetarako aurreikusten diren jarduketan inguruan aritzeko. Federazioari azaldu zitzaion Nafarroako Memoria Historikoaren Institutua egonkortzeko nahia dagoela. Halaber, memoriari buruzko plan estrategikoa egiten dutela jakinarazi zioten Federazioari eta bertan parte hartzeko eskaintza egin zioten. Era berean, NUKFrekin batera lantalde bat osatu nahi dute memoriaren alorrean egiten dituzten politiketan elkarlanean aritzeko.

- Lehen mailako arretaren hil ala biziko larrialdietako arduradunekin izandako bilera. Bileraren helburua hil ala biziko larrialdietarako duten plana aurkeztea izan zen. Ondoren prentsurreko batean aurkeztu zuten. Elkarlana eskatu zioten Federazioari informazioa zabaltzeko, igortzeko etab. Haien lehenengo helburua da osasun zentroetatik urrunen bizi diren udalen ordezkariekin biltzea; osotara 42 udal inguru lirateke.
- Baimentzeen Batzordearekin eginiko bilera. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluaren baitan sorturiko batzordea da, edadetuentzako arretarako gizarte zentroyen eta egoitzen baimentzeak arautzeko dekretu berri bat lantzeko sortua.
- Nafarroako Gobernuko Herritarren Partaidetzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiarekin eta beste ordezkariekin izandako bilera. Helburua da elkarlanean aritzea eta jarduketak programatzea. Horretarako, joan den legealdian izenpetutako hitzarmenaren antzeko beste bat izenpetzeko proposatuko diote Federazioari.
- Etxebizitzako zuzendari nagusiarekin izandako bilera abenduko batzar nagusian adierazitako etxebizitza zaharren bizigarritasun-zelulekin dagoen arazoaz mintzatzeko. Egoera horrek etxebizitza zaharrak alokatzeko zailtasunak eragiten ditu. Era berean, Nafarroako Gobernuko alokairuzko etxebizitzen onura fiskal berberak dituzten udal alokairuzko etxebizitza poltsak arautzeko eskatu zitzairen. Bilera horretan halaber, jakinarazi zitzaion Federazioari zelulak arautzeko foru dekretu berri bat lantzen ari direla eta NUKFri partaidetza eskatu zioten. Horretaz gain, Nafarroako Gobernuko alokairurako programei, Nasuvinsarekin hitzarmenak egiteko aukerari eta abarrei zabalkundea emateko jardunaldiak antolatzea komeniko litzatekeela jarri zen mahai gainean.

Bestalde, hutsik dauden etxebizitzen errolda hizpide izan zen, eta funtsezkotzat jo zen jabeek hutsik dauden etxebizitzengatik zerga eskatu ahal izateko. Jarduketa programa bat dute baina errolda horretan alta tramitzatzeko aurreikuspen motelak dituzte. Jakinarazi zitzaion Federazioari errolda hori arautuko zuen dekretuaren proiektua ez zela azkenean onetsi eta, horren ordezt, Etxebizitzari buruzko Foru Legean aldaketa bat onetsi zela.

Maya jaunak hitza hartu du eta bizigarritasun-zelulari dagokionez adierazi du adostasun handia dagoela egungo legedia aldatzeko beharraz eta horren inguruan erabaki politikoak hartu behar direla gehitu du. Horregatik, esan du aldaketa hori egiteko eskumena duen kontseilariarekin landu beharko litzatekeela gaia. Romero jaunak adierazi du, berriz, toki entitate askok alokairu eskaera dutela eta haiek kudeatu nahi dutela hurbiltasun handiagoa eta abar ematearren. Horretarako, berriro ere azpimarratu du, Nafarroako Gobernuko alokairu programentzako dauden onura fiskal berberak eduki beharko litzateketela toki entitateetako alokairu-poltsak. Bizigarritasun zelulari dagokionez, bat etorri da aurretik adierazitako ideiarekin. Alegia, bi gauza ezberdin beharra dagoela: batetik, oinarrizko segurtasun badintzak eta, bestetik, bizitzeko bestelako baldintzak. Bestalde, Nafarroako Gobernuko alokairu poltsetan hurbiltasun edo erreserba irizpideak kontuan hartu beharra ere proposatu da.

- UAGNko lehendakariarekin izandako bilera despoblazioaren alorrean haien jarduketa plana aurkezteko eta dituzten proposamenetan elkarlana eta laguntza eskatzeko.
- Fundación Caja Navarrarekin izandako bilera hiri eremuen deialdirako hitzarmen berri bat egiteko. Zuzkidura handitzeko proposatu zitzairen eta badirudi onartuko dutela. Zuzkidura 115.000 eurora handitzea litzateke proiektuak osorik finantzatu ahal izateko.

- Tramitazio bidean dauden arau-proiektuak: Hondakinen Funtza arautzen duen Foru Dekretuaren proiektua (hurrengo azaroaren 18ko Foru Batzordera eramanen da) eta ekitaldi publiko jasangarriak ospatzeko Foru Dekretuaren proiektua.
- Nafarroako Administrazio Auzitegiko gora jotzeko helegitea, Azkoiengo Udalak aurkeztutakoa, NUKFko lehendakariak alkate gisa duen dedikazioaren eta ordainsariaren eta Federazioko konpentsazioaren harira. Udalak dagozkion alegazioak aurkeztuko ditu eta NUKFri jakinarazi zaio helegitean agertu nahi duen onetsitako konpentsazio sistemari dagokionez. Federazioko zerbitzu juridikoek gaia aztertuko dute eta, egoki ikusiz gero, alegazioak aurkeztuko dituzte.
- Zezen-ikuskizunen lantaldearen lehenengo bilera, zezen-ikuskizunen Barneko Zuzendaritza Nagusiak deitua.
- Despopulazioari buruzko jardunaldiak. Datorren otsailaren 28an eta 29an izango dira eta Federazioak Parlamentuarekin eta Lurraldearen Kohesiorako Departamentuarekin batera egingen ditu.
- Toki Administrazioaren Departamentuarekin eta Kontuen Ganberarekin batera egindako fiskalizaziori eta barne kontrolari buruzko gida.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

9. PUNTUA- Galde-eskeak.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, jakitera eman du Lan Ikuskaritzatik eskaera bat egin dietela entzierroetan eta ikuskizunetan parte hartzen duten zezenen profesionalen kotizazioen inguruan. Dio eskatutako kopuruak oso handiak direla eta horrek zezen-ikuskizunak egitea zaildu egingen duela.

Idazkari nagusiak azaldu du dagoeneko Lan Ikuskaritzarekin hitz egin dutela gaiaren inguruan. Adierazi zaio eskatzen dituzten kopuruak zezenketen zuzendarien hitzarmen kolektiboan agertzen direnak direla baina jaietan zezenekin egiten diren entzierroetan eta bestelako ikuskizunetan araudiak ez duela langile kategoria hori derrigortzen. Adierazi duenez, Lan Ikuskaritzan berriro begiratuko dute gaia eta adieraziko dute zein irizpide erabiliko den.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, eskatu du hurrengo Batzorde Betearazlearen gai-zerrendan sartzea elizak immatrikulatutako ondareari buruzko lantalde baten sorrera.

Era berean, eskatu du, datorren ekainaren 20an indarrean sartuko den Erregistro Zibila Berrantolatzeko Legeari dagokionez, horrek udaletan zer eragin izanen duen ikusteko txostena egin dadila. Udalei emandako zerbitzua kaltetuko balitz, ondorengo eskatu du: NUKF lege horren kontra agertzeko, Nafarroako Gobernuari eskatzeko berrantolaketa horren alderdi ezkor guztiak bertan behera utz ditzala eta akordio-proposamen bat egitea udaletan mozio modura tramitatzeko zerbitzu hurbila eskatuz eta Nafarroako Gobernuak zerbitzua beregain har dezala eskatuz.

Zabaleta jaunak, Leitzako alkateak, jakinarazi du Hezkuntza Departamentuak eskola jantokiak esleitzeko pleguak egiten ari dituela. Horregatik eskatu du Departamentuari eskaera egiteko plegu horietan bertako eta hurbileko produktuak erabiltzeko beharra horrek haurrentzako kalitatean eragina duelako. Pleguak dagoeneko eginda badude kontratuen iraupena murriztea eskatu du.

Idazkari nagusiak esan du Federazioko zerbitzu teknikoek informazioa eskatuko dutela eta ikusiko dela zer egin daitekeen.

Soto jaunak, Gesalazko alkateak, eskatu du Nafarroako Gobernuari informazioa eskatzeko zuntz optikoaren zabalkundearen inguruan eta oraindik zuntza ez duten udalerrien kasuen aurreikuspena zein den esateko.

Garcia andreak, Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakariak, azaldu du NAOko argitalpenekin izan duten arazoa, gehienbat, abenduaren amaieran. Hori dela eta, lehentasunen irizpideak, epeak eta abarren inguruko informazioa eskatzeko eskakizuna egin du.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemerretziak eta hamabost minutu direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.